



2008KO IRAILAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko irailaren hamazazpian, arratsaldeko sei terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xanet Barreras Jauregi.

Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2008ko uztailaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2008ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEI ETA ZENTIMO BAT (218.580,01 €) eurotakoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ARERIAKO EKIPAMENDU ESZENIKOAREN 5. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikineko ekipamendu eszenikoaaren lanen obra zuzendaritza daraman Udal Arkitekto Teknikoak, lan hauen bosgarren egiaztagiria luzatu du. Bosgarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUROGEITA BOST MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU euro eta HOGEITA HAMALAU zentimotakoa (65.274,34 €) da. Lan hauek Chemtrol Division Teatro, S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta guztien adostasunarekin, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

